

Futbola ♦ Joxe Mari Bakero Barcelonako bigarren entrenatzailea da atzotik

«Etxean naiz berriro»

Ronald Koemanek utzitako lekua betetzeko deitu dute Bakero

Erredakzioa / Donostia

DUELA hiru urte Joxe Mari Bakerok agur esan zien Nou Campeko jarraitzaileei Mexikoko abenturak tentaturik. Orain, loriaz jantzi zuen taldera itzultzeko ordua dela erabaki du. Jokalari alde egin zuen, eta entrenatzaile itzuli da. Barcelonako zuzendari-tzak lehen taldeko bigarren entrenatzaile postua eskaini dio, eta goizuetarrak ez du zalantzarik izan. Mexikon urte politak eman ditu, baina Pueblan entrenatzaile lanetan izandako esperientzia ez da batere atsegina izan, eta etxera itzultzeko garaia dela erabaki du. Bakero Bartzelonan etxean bezala sentitzen baita. Atzo arratsaldean aurkeztu zen kazetarien aurrean, Louis Van Gaalen ondoran. Bigarren entrenatzaile lanak egiteaz gain, Van Gaal eta jokalarien arteko bitartekari lanak egingo ditu.

Bakero denboraldia amaitu arte proban egongo da, eta Van Gaalen gustuko lana egiten badu postua berea izango da beste bi urtez. «Postua irabazi egin beharko dut, jokalaria nintzenez bezala», esan zuen atzo Bakerok. Barcelona utzi zuenetik, atzokoa omen zen bere egunik zoriontsuena: «Talde honetan egotea eta Van Gaalekin lan egitea zorte handia da. Hemendik joan nintzenez haxe da nire egunik zoriontsuena».

Ez du entrenatzaile titulurik

Bakerok ez du oraindik entrenatzaile titulurik, baina ikasketekin gogor jarraituko duela agindu du. Van Gaalek esan duenez, bere kabuz pentsatzen duen laguntzaile bat nahi du, denari baietz esango ez diona. Horretan, behintzat, asmatu dute.



Joxe Mari Bakero, Barcelonarekin jokatutako azken partiduan.

hor zain

Ivan Rosado aurrelaria utzita etorri da Rayotik Osasunara

Osasunak beste aurrelari bat izango du ekainaren 30a arte, Rayoko Ivan Rosado utzita etorri baita. Rosado Huelvan jaio zen duela 25 urte, 1,74 neur-tzen du eta aurrelari bizia da. Osasunak erosi nahi zuen, baina Rayok ez du nahi izan.

Eibarko jokalariek astelehenera arte bakarrik oporrak

Blas Ziarretak astelehenera arte eman die atseden jokalariei. Entrenatzaileak ez du jokalariek erritmoa galtzea nahi. Bestalde, Leidaren aurkako partidua urtarilaren 4an jokatua nahi du Eibarrek.

Corinthians txapelkun Brasilen

Corinthians taldeak irabazi du Brasilgo txapelketa, finaleko hirugarren partiduan Atletico Mineiroekin hutsean berdindu eta gero. Corinthiansek tituluari eutsi egin dio.

harmailetatik begira

Reala behera?

Enekoitz Esnaola

GAIXORIK dago Realak, jaitziera postuan da, eta orain hango arduradunek esango dute taldea lagundu beharra dagoela, jokalariek-eta animatu behar direla, une zailak direla hauek, eta ez joateko mina ematera. Ulertzekoa da haiek hori eskatzea. Baina mina ematera ez da behin ere joan behar. Beraz, ez nahastu -ezta garai zail hauetan ere- mina ematera joatea eta kritika egitea.

Eta Realak merezi du kritikarik. Eta galdera da: Bigarren Mailara jaitziko al da? Ezin da esan Liga asko falta dela. Ez. Lehen itzulia amaitzeaz da. Eta taldeak beste pare bat hilabetez zuloan sartuta segitzen badu, oso-oso gaizki pasatuko du, ez dagoelako ohituta jaitziera-ko borrokan lehiatzen.

Eta txarrena da ez duela ematen bururik altxatzeko

moduan dagoenik. Kraussek gaizki ibili zen taldea, eta Clementerekin ere hala dabil -24 puntu posibleetatik hamar besterik ez ditu irabazi taldeak harekin, eta Kopan Logroñesek kanpoan utzi du-. Egia da Clementerekin atzealdea sendotu dela, baina egia da, halaber, aurrealdean gero eta arazo larriagoak dituela. Azkeneko hiru partiduetan ez du golik egin. Clementek, baina, atzetik aurrera egin nahi du taldea, eta horregatik fitxatu du Corino zentrala, eta horregatik fitxatu du Khokhlov erdilari indartsua. Aurrelaririk ez.

Iazko ekipotik batik bat Kovacevicen falta da nabarriena, eta Realak ez du asmatu hura ordezkatzeko eta hura gabe jokatzen. Eta orain iruditzen zait zulo txikiak estaltzen ari direla, benetako erremedioa jarri be-

harrean. Clementek-eta diote Realak ezin dituela izarrak fitxatu. Ez, ezin ditu fitxatu Rivaldo, Sevtxenko, Bierhoff, Raul, Kluivert, Vieri, Owen... Ez. Nola ba! Celtak eta Zaragozak ere ez, Realaren oso antzeko aurrekontuak dituztelako. Baina haiek badituzte Realak (beste batzuek bezala) ez dituen atzeritarrak: Karpin, Revivo, Mostovoi, Milosevic... Realean oso kaskar dabilta atzeritarrak, eta ez dute alderik markatzen. Sa Pinto kenduta, ez direlako oso onak -Sa Pinto ere, ordea, gaur egun...-.

Beraz, Realak hobe luke atzeritarren inguruan planteamendu aldaketa egitea, beti ez baitago zorte onik. Dirua badago. Teknikoak ere bai. Ausardia eta bista falta da, ordea. Baina jada ez ote da berandu izango?



Reala izugarri ari da nabaritzen Kovacevicen falta.

Futboleko jokatzeko du Rojoren Zaragozak

Talde ona da Zaragoza. Bai baitaki baloia erabiltzen eta kontrarioa dominatzen. Baita, dominatzen dutenean, kontraerasora jokatzeko ere. Herenegun kontraerasora jokatzea tokatu zitzaion, oso zaila delako Deportivo dominatzea (Mauro Silva, Flavio eta Jokanovic zelai erdian dituela). 2-1 irabazi zuen Zaragozak. Bigarren jarri da sailkapenean, eta euskal herritar bat da hango entrenatzaile: Rojo. Deportivo liderrekoa ere bai: Irureta. Badute meriturik.

Barcelonaren aulkia Vallecasen

Beldurtzeko moduko aulkia zeukan herenegun Barcelonak: Hesp, Frank eta Ronald de Boer, Sergi, Guardiola, Litmanen eta Dani. Eta Rivaldo deialditik kanpo. Entrenatzaileek diote ondoan daudenean jokatzeko dutela titular. Aipatutako izar horiek baino «hobeto» zeudenean, ordea, ezin izan zioten Rayori irabazi Vallecasen. Futboleko kontuak.